# Editorial

Ekitaldi baten bukaera eta hurrengoaren hasiera arautze-jarduera handiko garaia izaten da tributu-administrazioentzat. Ildo horretan, 2012. urtearen bukaera eta 2013. urtearen hasiera ez da salbuespena izan, arau, dekretu eta tributuen arloko foru-arau ugari sortu baitira.

Izan ere, aparteko garaia izaten da indarrean dagoen araudia berrikusteko, ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzeko eta, helburu berriak lortze aldera, tributu-politikako neurri berriak hartzeko. Hala ere, gaurko egoera ekonomiko nahasi honetan, kontu publikoen iraunkortasunaren aldetik ezartzen diren eskakizun zorrotzak aintzat harturik, areagotu egin da tributu-politikan jarritako itxaropena, tresna baliagarritzat jotzen baita bai politika ekonomikoan, bai aurrekontu-desorekak zuzentzeko. Beraz, nabarmena da tributu-erreformaren beharra, eta horrek ekarri du erakunde eskudunen jarrera eraginkorragoa tributuen arloa arautzeko.

Testuinguru horretan, 2012ko azken hilabetean eta 2013. urteko lehenengo hilabeteetan arautze-jarduera bizia izan da, bai nahikotasun-printzipioa indartze aldera, bai ekitate-printzipioaren aldetik. Azken horri dagokionez, tributu-kargaren birbanaketa bidezkoagoa lortzera bideratu dira ekimenak, bereziki. Zergak aldizkariaren ale honetako "Zergak gaur egun" izeneko sekzioan jarduera horren berri emango da, bai eta tributu-alorreko

El periodo de fin de cada ejercicio e inicio del siguiente coincide habitualmente con un momento de especial actividad normativa para las Administraciones tributarias y el final de 2012 e inicio de 2013, lejos de suponer una excepción a esta regla, se ha caracterizado por una producción de normas, decretos y otro tipo de disposiciones tributarias forales más numerosa e intensa.

Se trata de un momento del año especialmente propicio para la revisión del marco normativo en vigor, para evaluar el grado de cumplimiento de los objetivos fijados y para plantear la introducción de medidas de política tributaria con las que lograr nuevos objetivos. Pero en una coyuntura económica tan complicada como la actual, marcada por duras exigencias desde el lado de la sostenibilidad de las cuentas públicas, crecen las expectativas depositadas en la política tributaria como instrumento útil de política económica y para corregir desequilibrios presupuestarios. Hay por tanto una mayor demanda de reformas tributarias y ello se traduce también en una disposición mucho más activa por parte de las instituciones competentes para regular en el ámbito de los tributos.

En este contexto, la actividad normativa tributaria ha sido intensa este último mes de 2012 y los primeros de 2013, tanto en la búsqueda de un reforzamiento del principio de suficiencia como desde el lado del principio de equidad, en este caso con iniciativas enfocadas prioritariamente a conseguir una redistribución más justa de la carga tributaria. Se da buena cuenta de esa actividad en la sección de Actualidad Fiscal y adicionalmente en dos de las

neurriei buruzko arauak aztertzen dituzten aldizkariaren bi kolaboraziotan ere (foru tributu-sistemak nabarmen aldatzen dituzten arauak, hain zuzen).

Esan beharra dago aldundien eskumeneko politikak ez dituela eragin aipatutako garai horretan aurreikusitako edo onartutako foru-arau guztiak, baizik eta multzo handi bat Estatuko Administrazioak sortutako tributu-arauek eragin dutela, Ekonomia Itunak derrigorrezkoak diren foru-egokitzapenak egitera behartzen baitu. Alabaina, Estatuaren eta Euskadiren arteko tributu-harremanen eremu horretan, Estatuko Administrazioak onartu berri dituen aldaketa batzuek Ekonomia Ituna egokitzea eskatzen dute, bigarren xedapen gehigarriak horrela ezartzen baitu; hala ere, bi administrazioek oraindik ez dute adostu. Gai horrek eragina du Estatuko Administrazioak sortutako tributu berriak ituntzean, bai eta indarrean dauden ituntzeko arau batzuk egokitzeko beharrean ere. Azken horiek ahalik eta azkarren adostu beharko lirateke, tributu-sistema erkide eta foru tributu-sistemen arteko harmonizazio zuzena lortze aldera. Ildo horretan, aldebiko akordioa behar dutenen artean hauek daude: batetik, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zerga indargabetuta Hidrokarburoen gaineko Zergan sartzea eta, bestetik, tributu berriak ituntzea (esaterako, Joko Jardueren gaineko Zerga, 2012ko abenduaren 27ko jasangarritasun energetikorako neurri fiskalei buruzko 15/2012 Legea edo Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko Zerga). Espero dugu Zergak aldizkariaren datozen aleetan aztertzeko aukera izatea erabaki gabeko gai horiek adosten dituzten Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren akordioak, bai eta, egotekotan, administrazioen artean aintzat hartu eta adostu daitezkeen beste gai batzuk ere.

Aldizkariaren egiturari jarraiki, aurkibide eta editorial honen osteko hurrengo sekzioa “Zergak gaur egun” izango da. Sekzio horretan foru aldundietako tributu edo politika fiskaleko araudirako zer-

colaboraciones de este número de Zergak que comentan sendas normas de medidas tributarias introductoras de algunos cambios significativos en los sistemas tributarios forales.

Ha de señalarse que no todas las disposiciones forales aprobadas o proyectadas en el periodo de referencia responden a una política discrecional de las diputaciones, sino que un grupo numeroso de ellas tiene su origen en la producción de normativa tributaria, también intensa, desarrollada por parte de la Administración del Estado y que, de acuerdo con el Concierto Económico, obliga a las oportunas adaptaciones forales. En este ámbito de las relaciones tributarias entre el Estado y el País Vasco algunas de las modificaciones introducidas recientemente por la Administración del Estado requieren, tal y como se establece en la Disposición Adicional Segunda del Concierto Económico, la pertinente adaptación del mismo, en estos momentos aún pendiente de acordar entre ambas Administraciones. Es ésta una cuestión que afecta, tanto a la concertación de nuevas figuras tributarias creadas por la Administración de Estado como a la necesidad de adaptación de determinadas reglas de concertación vigentes y que sería conveniente acordar cuanto antes en aras a la correcta armonización de los sistemas tributarios común y foral. Apuntar a estos efectos, entre los asuntos pendientes de acuerdo bilateral, los relativos a la integración del derogado Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos en el Impuesto sobre Hidrocarburos y los relativos a la concertación de nuevas figuras tributarias como el nuevo Impuesto sobre las Actividades de Juego, los impuestos creados mediante la Ley 15/2012, de 27 de diciembre de medidas para la sostenibilidad energética o el Impuesto sobre los depósitos en entidades de crédito. Esperemos que en un próximo número de Zergak puedan ser objeto de comentario los acuerdos de Comisión Mixta del Concierto Económico que permiten cerrar esta relación de cuestiones pendientes y, en su caso, otras adicionales que puedan considerarse y acordarse entre las Administraciones.

Tras el sumario y este editorial, la primera sección en que se estructura la revista es la de Actualidad Fiscal. En esta sección los Servicios de Normativa Tributaria o de Política Fiscal de las Diputaciones Forales –autores

bitzuek zerrendatuko dituzte iazko azken hilabetean eta 2013ko lehenengo lau hilabeteetan onartu eta argitaratutako tributu-arauak, eta garrantzitsuenei iruzkinak egingo dizkiete. Nabarmenak dira 2013. urtetik aurrera foru tributu-sisteman Ondarearen gaineko Zerga berritua ezartzen duten foru-arauak (Gipuzkoako Lurralde Historikoan Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zerga). Zerga horien idazpuruen desberdintasuna baino haratago, egituran ere diferentziak dituzte hiru lurraldeetako Batzar Nagusiek onartutako arauek. Desberdintasun batzuk nabarmenak direnez (Araba eta Bizkaia alde batetik, eta Gipuzkoa beste alde batetik), foru-tributuen harmonizazioan lan handia egongo da.

Horrez gain, aipagarriak dira, izango dituzten eraginagatik eta ondorioengatik, hiru lurraldeetan onartutako balantzeak eguneratzeko prozedura ezartzen duten xedapenak. Prozedura horri esker, desagertu egiten da aktiboen kontabilitate-balioaren inflazioak duen eragina, eta balantzeek modu egokiagoan erakutsi ahal izango dute enpresen aktiboen balorazioa.

Bestalde, hiru foru-aldundiek sustatzen ari dira iruzur fiskalaren aurkako borrokako konpromisoa sendotzeko hainbat ekimen. Zentzu horretan, adierazgarria da aldizkariaren sekzio horrek jasoko duen iruzkina, zerga-iruzurraren aurkako borroka indartzeko neurri osagarriak nahiz zergen arloko beste aldaketa batzuk onartzen dituen 3/2013 foru-arauari egindakoa. Izan ere, garrantzi berezia eman diote iruzkin horri Bizkaiko Foru Aldundiko Tributu Araudirako Zerbitzuko egileek.

Halaber, ugariak dira Estatuko Administrazioak egindako aldaketetara foru tributu-sistema egokitzeko onartutako xedapenak, foru-erakundeek araugintzako eskumena ez izateagatik Ekonomia Ituna dela-eta barneratu beharrekoei eragiten dietelako. “Zergak gaur egun” sekzio horretan horiek guztiak zerrendatuko dira eta laburki iruzkinduko ere bai.

de la misma- relacionan las disposiciones de naturaleza tributaria aprobadas y publicadas durante el último mes del pasado año y los cuatro primeros meses de 2013 y seleccionan un grupo de ellas, las que consideran más relevantes, para ser objeto de comentario. A destacar, en primer lugar, las Normas Forales por las que, tras un periodo de transitoriedad en su aplicación, se aprueba la reincorporación al sistema tributario foral de un remozado Impuesto sobre el Patrimonio –Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa- a partir de 2013. Más allá de la diferencia nominativa, las normas aprobadas por las Juntas Generales de los tres territorios presentan diferencias en la configuración del Impuesto, algunas de ellas significativas –Álava y Bizkaia por un lado frente a Gipuzkoa por otro- que desde la perspectiva de la armonización tributaria foral plantean un escenario a reconducir.

Por su alcance y repercusión prevista son además reseñables las disposiciones aprobadas en los tres territorios por las que se establece un procedimiento de actualización de balances para eliminar los efectos de la inflación del valor contable de los activos a los que se aplica, permitiendo con ello que los balances reflejen más adecuadamente la valoración de los activos de las empresas.

Adicionalmente, las tres Diputaciones Forales están promoviendo diversas iniciativas dirigidas a reforzar su compromiso en la lucha contra el fraude fiscal. En este sentido es representativo el comentario que se recoge en esta sección de la revista referido a la Norma Foral 3/2013, aprobada por las Juntas Generales de Bizkaia por la que se aprueban medidas adicionales para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y otras modificaciones tributarias, al que sus autores del Servicio de Normativa Tributaria de la Diputación Foral de Bizkaia han dado una especial significación.

Son además numerosas las disposiciones aprobadas con motivo de la adaptación del sistema tributario foral a los cambios operados por la Administración del Estado que afectan a materias sobre las cuales las instituciones forales no disponen de competencia normativa y que, en virtud del Concierto Económico, han de ser incorporadas. Todas ellas se detallan y son también objeto de una breve reseña en esta sección de Actualidad Fiscal.

Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzako langileek Europar Batasuneko gaurkotasun fiskalaz egiten duten kronikaren bidez jakingo dugu 2013ko lehenengo hiruhilekoan fiskalitate-arloan gertatu den nabarmenena. Kronika zortzi atal handitan egituratuta dago: i) sarrera, ii) sozietateen fiskalitatea, iii) BEZ, iv) Finantza-transakzioen gaineko Zerga, v) Zerga Bereziak, vi) lankidetza eta iruzur fiskala, vii) prozedurak eta viii) erkidegoko argitalpenei buruzko atala.

Lehenengo atalean aipatuko da Irlandak (2013ko lehenengo seihilekoan Irlandari dagokio lehendakaritza) ECOFIN Kontseiluan aurkeztutako lan-programa, eta arreta berezia jarriko zaie fiskalitate-arloko helburuei.

Sozietateen fiskalitate-arloan ECOFIN Kontseiluaren zuzeneko fiskalitateko lan-taldeak egindako bi batzarren berri emango da. Batzar horietan sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri bateratu komunari buruzko Kontseiluaren zuzentarau-proposamena aztertu da, alabaina.

BEZari dagokionez, hiru alderdi hauei helduko zaie: bizkor erreakzionatzeko mekanismoa iruzurra gertatzen denean; zerbitzu elektroniko, telekomunikazio- eta irratidifusio-zerbitzuen zergapetzea Kontseiluaren Erregelamendu-proposamenaren esparruan (282/2011 Betearazpen Erregelamendua -EB- aldatzeko, zerbitzu-emateak egin diren tokiari dagokion aldetik); eta, azkenik, bonuen gaineko BEZaren araubidea (aurrez ordaindutako telekomunikazio-bonuak, opari-txekeak eta deskontu-bonuak).

Horrez gain, Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruz atal bat egongo da, eta hauek aztertuko ditu: aurrekariak, ECOFIN Kontseiluak lankidetza indartua baimentzea eta 2013ko otsailaren 14an Batzordeak aurkeztutako zuzentarau-proposamenaren xehetasunak.

La crónica de la actualidad fiscal en la Unión Europea que elabora el personal de la Delegación de Euskadi en Bruselas da cuenta de lo más significativo en materia de fiscalidad acontecido durante el primer trimestre de 2013, estructurándose en ocho grandes apartados: i) introducción, ii) fiscalidad de las sociedades, iii) el IVA, iv) el Impuesto sobre las Transacciones Financieras, v) los Impuestos Especiales, vi) cooperación y fraude fiscal, vii) procedimientos y un último apartado viii) de publicaciones en el ámbito comunitario.

Respecto al primero de los ocho apartados, se hace referencia al programa de trabajo presentado en el Consejo ECOFIN por la presidencia irlandesa a la que corresponde su ejercicio durante el primer semestre de 2013, prestando una mayor atención a los objetivos establecidos en el campo de la fiscalidad.

En el ámbito de la fiscalidad de las sociedades se informa sobre los avances en las dos reuniones celebradas por el grupo de trabajo de fiscalidad directa del Consejo ECOFIN en las que se ha tratado sobre la propuesta de Directiva del Consejo relativa a una base imponible consolidada común del impuesto sobre sociedades.

Respecto al IVA, se abordan tres cuestiones: el mecanismo de reacción rápida en caso de fraude, la imposición de los servicios electrónicos, los servicios de telecomunicaciones y de radiodifusión en el marco de la propuesta de Reglamento del Consejo por el que se modifica el Reglamento de Ejecución (UE) nº 282/2011 en lo relativo al lugar de realización de las prestaciones de servicios y, en tercer lugar, el régimen del IVA aplicable a los bonos (bonos prepagados de telecomunicaciones, cheques-regalo, bonos descuento).

Se dedica además un apartado al Impuesto sobre las Transacciones Financieras: los antecedentes, la autorización de la Cooperación Reforzada por parte del Consejo ECOFIN y los detalles de la propuesta de Directiva presentada por la Comisión el 14 de febrero de 2013.

Zerga Bereziei dagokienez, 2003/96/EE Zuzentaraua aldatzeko Kontseiluaren proposamenaren inguruan zeharkako fiskalitateko lan-taldearen baitan dagoen eztabaidaren berri emango da. Zuzentarau horren bidez, energia- eta elektrizitate-produktuak zergapetzeari buruzko Batasunaren erregimena berregituratzen da.

Bestalde, lankidetzaren eta iruzur fiskalaren arloan bi atal jorratuko dira. Lehenengoa, Batzordeak egindako bi kontsulta publikoei buruzkoa (bataZergapeko Kode Europarraren ingurukoa eta bestea Identifikazio Fiskaleko Zenbaki Europarrari buruzkoa); eta, bigarrena, Batzordeak joan den 2013ko urtarrilaren 23an ECOFIN Kontseiluan aurkeztutako iruzur fiskalaren eta zerga-ihesaren aurkako borroka sendotzeko ekintza-planari buruzkoa.

Halaber, EBren 2013ko lehenengo hiruhileko zerga-politikari buruzko txostenak bi gai jasoko ditu. Alde batetik, Batzordeak Espainiari egindako eskaera hau: Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren alderdi jakin batzuk aldatzea, bere aburuz kapitalen zirkulazio askea urratzen duelako. Eta, beste alde batetik, EBko Justizia Auzitegiaren 2013ko urtarrilaren 17ko epaia. Horren arabera, farmaziako produktu eta medikuntzako ekipamenduen arloan, Espainiak tasa murriztua aplikatzen die BEZaren Zuzentarauan agertzen direnak baino ondasun-kategoria zabalagoei.

Azkenik, “Zergak gaur egun” sekzioa amaitzeko, interesgarriak diren argitalpenen zerrenda jasoko da, bakoitzaren sarbide-helbidea barne.

Zergak aldizkariaren ale honetako “Ikerketak eta Kolaborazioak” sekzioko lehenengo artikulua Gemma Martínez Barbarak idatzi du, Bizkaiko Foru Aldundiko Zerga Politikarako zerbitzuburuak, hain zuzen. Lanaren izena “Euskadiko Lurralde Historikoen harmonizazio fiskala eta araugintzako gaitasuna” da, eta, Europar Batasunari dagokiona eta Euskadi eta Estatuaren arteko harremanei dagokiena aurreko ale bietan aztertu ostean , hirugarren eta azken zati honetan EAEko barne-esparruaren ikuspuntua aztertuz osatuko du lana.

En cuanto a los Impuestos Especiales se informa sobre el estado de situación del debate en el seno del grupo de fiscalidad indirecta sobre la propuesta de Directiva del Consejo que modifica la Directiva 2003/96/CE por la que se reestructura el régimen comunitario de imposición de los productos energéticos y de la electricidad.

En el ámbito de la cooperación y el fraude fiscal se tratan dos apartados, uno relativo a las dos consultas públicas lanzadas por la Comisión sobre el Código Europeo del Contribuyente y el Número de Identificación Fiscal Europeo respectivamente y otro referente al Plan de acción para reforzar la lucha contra el fraude fiscal y la evasión fiscal presentado por la Comisión en el Consejo ECOFIN el pasado 23 de enero de 2013.

Asimismo, el informe sobre fiscalidad UE del primer trimestre de 2013 se hace eco, por un lado, de la petición cursada por la Comisión a España para que modifique determinados aspectos de las normas reguladoras del impuesto sobre sucesiones y donaciones en los Territorios Históricos de Álava y Bizkaia que en su consideración vulneran la libre circulación de capitales y, por otra parte, de la Sentencia del Tribunal de Justicia de la UE de 17 de enero de 2013 según la cual España aplica un tipo reducido a categorías de bienes más amplias que las previstas en la Directiva IVA en el ámbito de los productos farmacéuticos y equipos médicos.

Por último, cierra esta sección de actualidad fiscal una relación de publicaciones de interés que incluyen las correspondientes direcciones de acceso.

Abre la Sección de Estudios y Colaboraciones de este número de Zergak la tercera y última entrega de la serie “Armonización fiscal y capacidad normativa de los Territorios Históricos del País Vasco”, en la que Gemma Martínez Barbara, Jefa del Servicio de Política Fiscal de la Diputación Foral de Bizkaia, tras haber enfocado su análisis desde el plano de la Unión Europea y desde el de las relaciones País Vasco-Estado en las dos entregas anteriores , lo completa ahora al abordarlo desde la óptica del ámbito interno de la CAPV.

Azterketa horretan, idazlea araudian dauden barne-harmonizazio fiskalaren aipamen guztiak batzen saiatuko da, hau da, arau hauetan dauden aipamenak: Autonomia Estatutuan, Ekonomia Itunean, Lurralde Historikoen Legean eta zergapideen elkaregokitasun, erakidetasun eta lankidetasunari buruzko 3/1989 Legean. Arau horietan oinarriturik, autoreak bere interpretazioa eta jarrera adieraziko ditu; nolanahi ere, esparru zaila da hori, tributuak ezartzeko foru-ahalek eta Eusko Legebiltzarraren harmonizazio-eskumenak topo egiten baitute.

Horrez gain, egileak lurralde historikoen araudiaren harmonizazio-arloan gertatutakoa aztertuko du, eta aparteko ataletan aztertuko dituen bi pasarte deigarri alde batera utzita (Sozietateen gaineko Zergaren 2007ko erreforma eta Gipuzkoak 2008an Ondarearen gaineko Zerga mantendu izana), barne-harmonizazioa handia izan dela ondorioztatuko du. Autorearen iritziz, harmonizazio lanetan oso lagungarria izan da helburu horrekin sortutako erakunde arteko organo nagusiaren, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoaren (EZKO), funtzionamendu ona eta diseinu egokia.

Kolaborazioari amaiera emateko, harmonizazio fiskalaren printzipioek lurralde historikoen zerga-araugintzako eskumenean duten eraginari buruz bere interpretazioa labur adierazteko, egileak hainbat ondorio nabarmenduko ditu. Horretarako, ondorioen azken atal hau analisiaren hiru ikuspegiak desberdinduz egituratuko du: i) harmonizazioa Europar Batasuneko esparruan, ii) harmonizazioa lurralde erkidearekin, eta iii) EAEko tributu-sistemen arteko barne-harmonizazio fiskala.

Sekzio horretako beste bi kolaborazioetan aztertuko dira foru aldundiek tributu-arloan onartutako 2013ko arau-aldaketa nagusiak. Lehenengoak Araban onartutakoa aztertuko du, eta bigarrenak Gipuzkoan onartutakoa. Aldaketa horiek aurreko ekitaldiaren bukaeran izapidetzen hasi ziren tributuen arloko neurriei buruzko xedapenen bidez egin ohi dira. Horrez gain, artikulu bien egileek ere aldundi bakoitzeko tributu-araudiaren arloko organo arduradunetan parte hartzen dute, eta, ho-

En su análisis trata de conjugar todas las referencias a la armonización fiscal interna que se contienen en el marco legal regulador de esta materia, tanto en el Estatuto de Autonomía como en el Concierto Económico, en la LTH y en la propia Ley 3/1989, de armonización, coordinación y colaboración fiscal. A partir de una lectura conjunta del marco legal, la autora fundamenta su propia interpretación sin eludir una toma de posición en ese espacio, no exento de tensiones, en el que potestades tributarias forales y competencia armonizadora del Parlamento Vasco se intersectan.

Revisa además qué ha sucedido en la práctica en el ámbito de la armonización de la normativa tributaria de los tres Territorios Históricos, llegando a la conclusión de que, a salvo de dos episodios llamativos concretos a los que dedica sendos apartados en el artículo –la reforma del Impuesto sobre Sociedades de 2007 y el mantenimiento del Impuesto sobre el Patrimonio en Gipuzkoa en 2008– el grado de armonización interna ha sido muy alto y, en su opinión, a ello ha contribuido de forma decisiva el buen funcionamiento y un diseño adecuado del principal órgano interinstitucional previsto para estas funciones, el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE).

Como colofón a su estudio, extrae una batería de conclusiones que sintetizan su interpretación sobre cómo se ve afectada la competencia normativa tributaria de los Territorios Históricos por los principios de armonización fiscal, y estructura este último apartado de conclusiones diferenciando entre los tres planos desde los que ha abordado su análisis: i) la armonización en el ámbito de la Unión Euopea, ii) la armonización con el sistema tributario de territorio común y iii) la armonización fiscal interna entre los sistemas tributarios de la CAPV.

Las otras dos colaboraciones que se incluyen en esta sección tienen en común que ambas analizan las principales modificaciones normativas que en materia tributaria proponen introducir en 2013 las diputaciones forales, de Álava en el primer caso y de Gipuzkoa en el segundo, mediante las correspondientes disposiciones de medidas tributarias para el ejercicio que tradicionalmente comienzan a tramitarse a finales del ejercicio anterior. Además presentan similitud ambos artículos en relación con su

rrexegatik, ondo ezagutzen dituzte Zergak aldizkariaren ale honetan aztertuko dituzten gaiak.

Kolaborazio biek Arabako eta Gipuzkoako neurriei buruzko foru arauak ondo ulertuz irakurtzeko aukera emango digute. Aukera horrek testu ofizialen irakurketan lagundu dezake, edo testu ofizialen irakurketa guztiz ordeztu. Izan ere, kolaborazio horien bidez lagungarriak izango diren arau-xedapenen azalpenak eta idazpuruen edo artikuluen aipamenak identifikatuko dituzte egileek.

Arabako Foru Aldundiko Zerga Araudiaren zerbitzuburu Javier Armentia Basterrak zehazki aztertuko ditu Aldundiak onartutako 2013. urteko zerga neurriei buruzko apirilaren 15eko 13/2013 Foru Arauak jasotzen dituen arau-aldaketak. Hasteko, aipatu eta azaldu egingo ditu Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean egindako aldaketak, eta ondoren aztertuko ditu, atal bereizietan zerga bakoitzari dagozkion aldaketak. Tributu hauek aztertuko ditu (Aldundiak araugintzako eskumena du guztien gainean): PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Araua, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ), Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga (EIOZ), tasa eta prezio publikoak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen araubide fiskala eta mezenasgorako pizgarri fiskalak. Oro har, salbuespenak salbuespen, Foru Arauaren aldaketak edo teknikoak dira, batez ere, edo tributuen zenbatekoak eguneratzen dituzte. Beraz, onartutako tributu-ekimenak ez dira garrantzitsuak.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Ogasuneko Araugintzako eta Lege Aholkularitzako atalburu Luis Bernarás Iturriozek zerga alorreko zenbait aldaketa

autoría, porque en ambos, los autores forman parte activa de los órganos responsables en materia de normativa tributaria de cada diputación y, por tanto conocen de primera mano los temas que abordan en este número de Zergak.

En las dos colaboraciones ha de reconocerse la virtud de facilitarnos una lectura comprensiva del Proyecto de Norma Foral en el caso de Álava y de la Norma Foral en el caso de Gipuzkoa, como alternativa o, si se quiere como complemento, a la estricta lectura de los textos oficiales sin la ayuda de las explicaciones ni la identificación de las referencias a epígrafes o artículos de disposiciones normativas que aportan los autores.

Javier Armentia Basterra, Jefe del Servicio de Normativa Tributaria en la Diputación Foral de Álava, hace un repaso exhaustivo a las modificaciones normativas que se contienen en el proyecto de Norma Foral de medidas tributarias para el año 2013 aprobado por esa Diputación. Comienza por relacionar y comentar las modificaciones proyectadas en la Norma Foral General Tributaria y continúa dedicando un apartado a los cambios propuestos en el Proyecto en cada una de las figuras impositivas sobre las cuales se dispone de competencia normativa foral: el IRPF, el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentales, el Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, la Norma Foral Reguladora de las Haciendas Locales, el Impuesto sobre Actividades Económicas (IAE), el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), sus tasas y precios públicos y, por último, el régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo. En su conjunto y, a salvo de algunas excepciones puntuales, las modificaciones del Proyecto de Norma Foral o tienen un componente fundamentalmente técnico o persiguen la actualización cuantitativa de determinados elementos de los tributos. No se abordan por lo tanto iniciativas tributarias de gran calado, ello sin perjuicio de los eventuales ajustes que durante el periodo de tramitación de la norma pudieran aprobarse.

Por su parte, Luis Bernarás Iturrioz, Jefe de Sección en el Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico de la Hacienda Foral de Gipuzkoa, dedica

onartzen dituen 2012ko abenduaren 27ko 13/2012 Foru Araua aztertuko du bere artikuluan.

Lan horren egitura eta Javier Armentiaren lanarena oso antzekoak dira. Sarrera labur baten bidez arauaren helburuak aipatuko ditu, eta Gipuzkoako Lurraldeko politika fiskalaren helburu orokorren testuinguru zabalagoan kokatuko du araua. Ondoren, arauak eragindako aldaketak aztertuko ditu egileak, zergaz zerga, eta, horrez gain, batu ere egingo ditu indarrean sartu diren dataren arabera.

Ugarienak PFEZri dagozkio. Horien artean batzuk oso esanguratsuak dira, esaterako, aurrezteatearen likidazio-oinarriak ezarrita duen tarifari buruzkoa, edo loteria-sarien tributu-araubide berriari buruzkoa. Arauak Sozietateen gaineko Zergan eragindako aldaketak ere aztertuko dira artikuluan (teknikoak dira, batez ere, erregimen berezi bat kentzearena izan ezik, egileak bereziki aztertuko duena). Horrez gain, aipatzekoak dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan egindako arau-aldaketa batzuk (salbuespenen bat kendu da), bai eta tokiko tributuen arloak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak jasotakoak ere.

Aldizkariaren ale honetan, "Erreferentziak" izeneko sekzioa hiru ataletan egituratuta dago:

1) Lehenengo atala "EZKO Kontsultak" da, eta bertan Zerga Koordinaziorako Organoak informatu dituen zergei buruzko kontsultak jasotzeko tartea egongo da. Izan ere, Zerga Harmonizazio, Koordinazio eta Lankidetzako maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde historikoetako zerga-administrazioek darabiltzaten irizpideen koordinazioa lortzeari begira, kontsulta lotesleak Zergak Koordinatzeko Organoaren txostenaren ondoren argituko dira.

su artículo al análisis de la Norma Foral 13/2012, de 27 de diciembre, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias. En este caso se trata de una norma ya aprobada, superada por tanto la fase de proyecto, a diferencia del artículo anterior.

La estructura de este trabajo es muy similar a la del artículo de Javier Armentia. Tras una breve introducción en la que señala los objetivos de la norma y se contextualiza ésta en el marco más amplio de los objetivos generales de política fiscal del Territorio de Gipuzkoa, el autor realiza un recorrido, impuesto por impuesto, por las modificaciones normativas aprobadas por esta disposición, agrupándolas además según la fecha de entrada en vigor.

Las más numerosas, algunas de ellas de gran significación –como las que afectan a la tarifa aplicable a la base liquidable del ahorro o el nuevo régimen tributario de los premios de lotería- corresponden al IRPF. Las modificaciones en el Impuesto sobre Sociedades promovidas en la Norma y comentadas en este trabajo son principalmente de carácter técnico, con excepción de la eliminación de uno de los regímenes especiales, cuestión a la que el autor dedica una atención especial. Además son reseñables determinados cambios normativos en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados (eliminación de algunas exenciones) y hace referencia asimismo a las modificaciones incorporadas en el ámbito de los tributos locales y en la Norma Foral General Tributaria.

La sección de "Referencias" se estructura en este número de la revista en tres apartados:

1) El primero de ellos, el de "Consultas OCTE", abre un espacio destinado a recoger consultas tributarias que han sido informadas por el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi, según dispone el artículo 14 de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, de Armonización, Coordinación y Colaboración Fiscal: "A los efectos de conseguir la coordinación de los criterios que se sustenten por las Administraciones tributarias de los Territorios Históricos, las consultas vinculantes se evacuarán previo informe del Órgano de Coordinación Tributaria …".

Zergak aldizkariaren ale honetan bi kontsulta aukeratu dira. Biek PFEZri buruz jardungo dute: lehenengoa atzerrian egindako lanagatik lortutako etekinei aplikatzen zaien salbuespenari buruz arituko da, eta bigarrena beka batzuei ezarritako atxikipen edo konturako sarrerei buruz.

2) Ekonomia Itunaren III. kapituluko 3. atalak arautzen ditu Arbitraje Batzordearen osaera, eginkizunak eta erabakien erregimena. Batzorde horrek Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean sortzen diren tributuen arloko auziak ebaztea du helburu. Gauzak horrela, Zergak aldizkariaren ale honetako "Erreferentziak" sekzioko bigarren atalean, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak emandako ebazpenei buruzkoan, kopiatu egingo dira, izen propioak ezabatuta, Batzorde horrek emandako eta eskura izan ditugun azken ebazpenak; guztiak 2012ko azken hilabeteetakoak.

Bost dira atal horretan jasoko diren ebazpenak. Horietako hirutan subjektu pasiboaren egoitza fiskalaren arloan dagoen desadostasunak eragin du gatazka. Gainerako bietan Arbitraje Batzordeak Sozietateen gaineko Zergarekin zerikusia duten desadostasunak ebazten ditu: batak ikuskapen-eskumenaz dihardu, eta besteak egiaztapen-jardueren eskumenaz.

3) Azkenik, Zergak aldizkariaren ale honetako "Estatistikak" atalean agertuko da, Igor Guinea Palacios Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Sarreren Kudeaketarako eta Bilketen Azterketarako Zerbitzuko teknikariak eginda, 2012ko ekitaldian foru-aldundiek bildutako zerga itunduei buruzko informazioa. 11.408 milioi euroren bilketa erregistratu da, 2011ko ekitaldian kontabilizatutako zerga-bilketaren % 0,6 gutxiago, eta aurrekontuaren betetze-maila % 94,2 izan da. Hau da, 2012ko ekitaldirako aurreikusitakoa baino 700 milioi euro inguru gutxiago bildu dira. Gogoratu beharra dago aurreikusita zegoela tribu-

En este número de Zergak se han seleccionado dos consultas que afectan en ambos casos al IRPF: a la aplicación de la exención prevista para los rendimientos percibidos por trabajos en el extranjero, en un caso, y a la práctica de retenciones o ingresos a cuenta en supuestos de determinada modalidad de becas, en el otro.

2) El Capítulo III del Concierto Económico en su sección 3ª regula la composición, funciones y el régimen de los acuerdos de la Junta Arbitral, órgano que tiene atribuida la misión de resolver los conflictos de naturaleza tributaria planteados entre la Administración del Estado y las Diputaciones Forales. El segundo apartado de la sección "Referencias" de este número de Zergak, el de "Resoluciones de la Junta Arbitral del Concierto Económico", transcribe debidamente despersonalizados los últimos acuerdos dictados por ese órgano arbitral a los que hemos tenido acceso, todos ellos de los últimos meses de 2012.

Las resoluciones incluidas son cinco, de las cuales tres tienen como motivo del conflicto la discrepancia sobre el domicilio fiscal del sujeto pasivo y en las dos restantes la Junta Arbitral resuelve sobre discrepancias relacionadas con el Impuesto sobre Sociedades: en un caso sobre la competencia inspectora y en el otro sobre la competencia para la realización de actuaciones de comprobación.

3) Por último, el apartado "Estadísticas" elaborado por Igor Guinea Palacios, técnico del Servicio de Gestión de Ingresos y Análisis Recaudatorio en el Departamento de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco, incluye en este número de Zergak información sobre la recaudación por tributos concertados de las Diputaciones Forales correspondiente al cierre del ejercicio 2012. Los 11.408 millones de euros de recaudación registrada suponen una disminución del 0,6% sobre la recaudación contabilizada en el ejercicio 2011 y un grado de ejecución del 94,2% respecto a las previsiones presupuestarias, es decir, una recaudación alrededor de

tuen bidez 12.116,7 milioi euro bilduko zirela. Beraz, espero zen diru-sarreren hazkunde-tasa % 5,5 zen, eta azkenik erregistratutakoa kopuru horretatik urrun dago, % -0,6 izan baita.

700 millones inferior a la presupuestada para 2012. Recordar que se presupuestaron unos ingresos tributarios de 12.116,7 millones de euros, por lo que la tasa de crecimiento de los ingresos esperada era del 5,5%, alejada del -0,6% registrado finalmente.

Hori guztia ekonomia-arloan ezegonkortasuneko testuinguru globalean gertatu da. Ingurune horretan 2012ko aurrekontuetako sarreren aurreikuspena egiterakoan iragarritako hazkunde-tasa beherantz berrikusi izan da hainbatetan. Testuinguru horretan, nahiz eta urte bukaeran zenbait tributu-arloko neurrik bilketa-jaitsieraren murrizketan eragina izan duten –batez ere, Estatuko Administrazioak 2012ko uztailean BEZaren zerga-tasak igo izana– ez da nahikoa izan ekonomia etsiaren ondorio negatiboei aurre egiteko eta tributuen bidez hasieran aurreikusitako bilketa lortzeko.

Todo ello se ha producido en un escenario global de gran incertidumbre en el entorno económico, en el que las tasas de crecimiento que se pronosticaron en el momento de elaborar las previsiones de ingresos para los presupuestos de 2012 se han visto sucesivamente revisadas a la baja. En este contexto, a pesar de que en el trayecto final del año han surtido efecto, minorando la caída recaudatoria, algunas medidas tributarias –fundamentalmente la subida de tipos impositivos en el IVA implementada por la Administración del Estado en julio de 2012– el impacto en la recaudación no ha sido suficiente para vencer los efectos negativos de una economía deprimida y generar los ingresos tributarios presupuestados inicialmente.

Zergaz zerga egindako azterketak agerian jarriko du zuzeneko zergapetzeak bilakaera hobea izan duela (% +1) –adierazgarria da 2012an Ondarearen gaineko Zergaren bidez 115 milioi euro bildu zirela eta 2011n, aldiz, ez zela sarrera arruntik egon zerga horren bidez– kudeaketa propiokoen zeharkako zergapetzeak baino. Izan ere, azken horren bidez bildutakoa jaitsi egin da (% -3,6).

El análisis por impuestos desvela un mejor comportamiento de la recaudación por imposición directa (+1%) –significativa la recaudación de 115 millones de euros en 2012 por el Impuesto de Patrimonio, mientras en 2011 no hubo ingresos ordinarios por este Impuesto– que contrasta con la caída de la recaudación por imposición indirecta de gestión propia (-3,6%).

Aldizkariaren bukaerako “Tributu Araudia” sekzioan Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Administrazioko Zuzendaritzak egindako hileko buletinetan sartzeko helbidea jasoko da. Hilabetekari horietan batzen da foru-aldundiek argitaratutako tributu-araudiaren laburpena (ALHAO, BAO eta GAO), bai eta Eusko Jaurlaritzak (EHAA), Nafarroako Foru Erkidegoak (NAO) eta Estatuak (BOE) argitaratu dutenarena ere.

En la sección de cierre de la revista, “Normativa Tributaria” se indica la dirección de acceso a los boletines mensuales elaborados por la Dirección de Administración Tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco, en los que se recoge un compendio de la normativa tributaria publicada por las Diputaciones Forales (BOTHA, BOB y BOG), el Gobierno Vasco (BOPV), la Comunidad Foral de Navarra (BON) y el Estado (BOE).

Bukatzeko, zergen arloko foru-arautegiari buruzko informazio gehiago nahi duten irakurleei gomendatzen diegu EAEko lurralde historikoen web-orrietan (www.alava.net, www.bizkaia.net,

Por último, sugerimos al lector interesado en completar la información útil sobre materia tributaria foral, que acceda a los espacios destinados a este fin en las propias páginas web de cada uno de los

www.gipuzkoa.net) eta Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren web-orrian (www.ogasun.ejgv.euskadi.net) horretarako jarrita dauden ataletan sartzeko. Eusko Jaurlaritzaren orriko "Foru Zerga Kodea" aplikazioan sartuta hiru lurralde historikoetako zerga-arautegiaren bertsio integratua azter daiteke. Era berean, Ekonomia Itunarekin zerikusia duten gaiak sakonago ezagutzeko Ekonomia Ituna sustatzeko eta hedatzeko sortutako Ad Concordiam izeneko elkartearen webgunean sartzea gomendatzen dizugu (www.conciertoeconomico.org).

tres territorios históricos de la CAPV (www.alava.net, www.bizkaia.net, www.gipuzkoa.net) y en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas del Gobierno Vasco (www.ogasun.ejgv.euskadi.net), desde la que se puede acceder a la aplicación "Código Fiscal Foral" que ofrece una versión integrada de la normativa tributaria de los tres territorios históricos. Asimismo, para el conocimiento y la profundización en los temas relacionados con el Concierto Económico, aconsejamos el acceso a la web promovida por la asociación Ad Concordiam para la Promoción y Difusión del Concierto Económico, www.conciertoeconomico.org.